

'Horrelakoa da Gasteiz' lehiaketa

Oinarriak

1. Gaia: **bisitariak hartzen badituzu Gasteizen, zer erakutsiko diezu hirian?** Partekatu txoko historiko baten argazkia, natura-espazio batena, tradizio batena (San Prudentzio eta Estibalizko Andre Mariaren jaiak, Aste Santua...), kultur jarduera batena (kontzertu bat zure areto gogokoenean, antzezlan bat...), saltoki batena edo zuretzat bertako enogastronomia irudikatzen duen zerbaitea (pin-txoak, platerak, ostalaritza-lokal bat...).
2. **Parte hartzeko epea:** 2020ko maiatzaren 4tik 10era, biak barne.
3. Onargarriak izango dira baldintza hauek betetzen dituzten parte-hartzeak bakarrik:
 - 3.1. Gai hauei buruzko **argazkiak argitaratzea** Twitter, Facebook edo Instagramen: historia, natura, tradizioak, kultura-jarduerak, merkataritza edo enogastronomia. Profil bakoitzeko gehiezin hiru argazkirekin parte hartu ahal izango da, leiho/balkoietatik atereak, edo kalean itxialdiaren aurretikoak badira. Aurretik argitaratu gabeko argazkiak izan daitezke edo jadanik argitaratuak, helburua delako bertako kultura turistikoko baliabideei ikusgarritasuna ematea.
 - 3.2. Testua edo argazki-oina idazteko espazioan honako traola edo etiketa hauek idatzi beharko dira:
 - o **#HorrelakoaDaGasteiz, #AsiEsVitoriaGasteiz** edo biak.
 - o **#TurismoVitoria, #Turismo_Vitoria** edo biak.
 - 3.3. Beharrezkoa izango da, **behintzat, Turismo arloko udal profiletako bat jarraitzea:** @turismo_vitoria Instagramen, @TurismoVitoria Twitterren edo @turismovitoria Facebooken.
4. Sariak honako hauek izango dira:
 - 4.1. **Lehen sariak** honako hauek guztiak hartuko ditu barne:
 - o Bi pertsonarentzako gau bat, gosaria barne, Udalak aukeratutako lau izarretako hotel batean edo landetxe batean.
 - o Bi pertsonarentzako bazkari edo afari bat Udalak aukeratutako jatetxe ospetsu batean.
 - o 100 €-ko bonua bertako txikizkako saltokietarako. Gastua Udalari justifikatu beharko zaio.
 - o Bi pertsonarentzako bisita gidatu bat Erdi Aroko Hirigunera.
 - 4.2. **Bigarren sariak** honako hauek guztiak hartuko ditu barne:
 - o Bi pertsonarentzako gau bat, gosaria barne, Udalak aukeratutako lau izarretako hotel batean edo landetxe batean.
 - o 100 €-ko bonua bertako txikizkako saltokietarako. Gastua Udalari justifikatu beharko zaio.
 - o Bi pertsonarentzako bisita gidatu bat Erdi Aroko Hirigunera.
 - 4.3. **Hirugarren sariak** honako hauek guztiak hartuko ditu barne:
 - o 100 €-ko bonua bertako txikizkako saltokietarako. Gastua Udalari justifikatu beharko zaio.
 - o Bi pertsonarentzako bisita gidatu bat Erdi Aroko Hirigunera.
5. Saritutako argazkiak honako pertsona hauek osatutako **epaimahaia**k aukeratuko ditu:
 - 5.1. Vitoria-Gasteizko Udaletik:
 - 5.1.1. Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko Bilzar eta Turismo Zerbitzuko burua, edo hark izendatutako ordezkoa.
 - 5.1.2. Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko Proiektuen Zerbitzuko burua, edo hark izendatutako ordezkoa.

5.2. Arabako Foru Aldunditik:

5.2.1. Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuko burua, edo hark izendatutako ordezkoa.

6. Irabazi duten argazkiak zein diren 2020ko maiatzaren 12tik aurrera jakinaraziko da. Irabazleek Turismo arloko Udaleko profiletatik jasoko dute irabazi izanaren jakinarazpena. Mezu pribatu baten bidez izango da, aipatutako datatik aurrera.
7. Irabazle bakoitzari nor den frogatzeko eskatuko zaio, eta, horretarako, mezu pribatu bat bidali beharko du Turismo arloko Instagrameko, Facebookeko edo Twitterreko profiletara. Bertan, bere izena, bi abizen, e-posta helbidea eta NANaren kopia (eskaneatutako/argazki bidez digitalizatutako kopia) bidali beharko ditu. Turismoko profiletara zuzendutako mezu pribatu hori 2020ko maiatzaren 18a baino lehen bidali beharko du. Ez badu bidaltzen, saria edo sariak zerrendan hurrengo postuan sailkatutako eta profileratuak bidalitako pertsonarentzat izango dira. Behar izanez gero, erreserbako pertsonekin harremanetan jartzeko aukera egongo da.
8. 18 urtetik beherako pertsona batek irabazten badu, saria eskatu ahal izateko Turismo Bulegora (Espainia Plaza, 1) joan beharko du, osasun egoerak ahalbidetzen duenean, bere aita, ama edo tutoreak lagunduta.
9. **Sariak jasotzeko epemuga:** irabazleek Turismo Bulegora (Espainia Plaza, 1) joan beharko dute 2020ko maiatzaren 25a baino lehen. Ez badute hala egiten, saria edo sariak hurrengo postuan sailkatutako pertsonarentzat izango dira. Azken horrek 2020ko ekainaren 8ra arteko epea izango du saria(k) jasotzeko.
10. **Sariez disfrutatzeko epemuga:** Turismo Bulegotik jakinaraziko zaie data irabazleei, osasun egoeraren arabera.
11. Ezingo dute saririk irabazi Vitoria-Gasteiz Turismo & Convention Bureau bulegoko, Vitoria-Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko eta Arabako Foru Aldundiko Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko langile eta kudeatzaileek.
12. Vitoria-Gasteiz Turismo & Convention Bureau bulegoak eta Vitoria-Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailak argazkiak erabili ahal izango dituzte irabazi asmorik gabeko hedapen-jardueretarako.
13. Zozketan parte hartzeak oinarri hauen onarpena dakar. Puntuetako edozein ez betetzeak zozketatik kanpo geratzea ekarriko du. Vitoria-Gasteiz Turismo & Convention Bureau bulegoak eta Vitoria-Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailak eskubidea dute edozein parte-hartzaile kanporatzeko, bere jarrera errespeturik gabekoa edo iruzurrezkoa izan bada.

Datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazioa

Tratamenduaren arduraduna

— Vitoria-Gasteizko Udala (IFK: P0106800F)

Tratamenduaren arduradunaren kontaktu datuak

— Pintor Teodoro Dublang kalea, 25
01008 Vitoria-Gasteiz, Araba
945 161 616 - informacion@vitoria-gasteiz.org - www.vitoria-gasteiz.org

Datuak Babesteko Ordezkariaren kontaktu datuak

— dbo-dpd@vitoria-gasteiz.org

Tratamenduaren xedeak

— Udal zerbitzuei dagokienez herritarren eskakizunak artatzea, eta udal-eskumeneko prozedurak izapidetzea, 39/2015 legean aurreikusitakoarekin bat etorrira.

Tratamenduaren legitimazioa edo oinarri juridikoa

- DBAOk 6.1.a) artikulua: Interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko adostasuna eman du helburu zehatz bati edo gehiagori begira.

Hartzaileak

- Datu pertsonalik ez zaie lagako hirugarrenei.

Gordetzeko epea

- Datuak gorde egingo dira, jaso ziren xederako eta/edo xede horretatik eta datuen tratamendutik erator litekeen erantzukizun oro preskribatzeko lege ezarritako epeak iraungi bitartean. Horrez gain, gorde egingo dira baita pertsona interesatuarekin izandako harremanetik eratorri litezkeen erreklamazioak egiteko edo horietatik babesteko aurreikusitako epeak iraun bitartean. Orobat, artxibategi eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko zaie datuei.

Pertsonen eskubideak

- Datuak babesteko delegatuaren bitartez, pertsona interesatuak datuak ikusi ditzake, aldatzeko eskatu, edo, hala behar bada, datuak ezeztatzeko eskatu, horien kontra agertu edo tratamendua mugatzeko eskatu.